IRUDIETAN ▸

Txondorrari atera diote ikatza

ARKAITZ APALATEGI

Hilabeteko lan luze eta gogorraren ondoren, aste honetan bukatu dute txondorraren prozesua Ataunen. Herritar talde batek, gau eta egun lan eginez, hasierako egur pilatik ikatza ateratzea lortu dute. Garai bateko bizimodua gogoratzeko ere balio izan du.

Egur pila, prozesuaren hasieran. A. APALATEGI

Egurra estali ondoren, sua eman zioten txondarrari. A. APALATEGI

ITZAIN ▸ JON ARANO

Super Tuneladorak

Gogoratzen al zarete Lopez Arriortua "SuperLopez" euskal enpresariaz? 90etako `pelotazo´ enpresarial eta yupien eredu, ez dakit Wolkswageneko-edo halamoduzko enpresa bateko zuzendaritzakoa izan zen behintzat. "Langile Jauna" kontzeptu xuriaren sortzaile, langileak enpresan ardurak hartzearen, inplikatzearen edo esklabotasun berriaren edota eskabiolakeria zaharren ideologo, gazte baskoen "gaupasen" aurka azaldu zitzaigun. Zer ez ote luke esango egun, goizalde edo eguerdi arteko afterren aurka...?!

Kontua da, ez dakit legenda urbanoa ote den ala ez, zera esaten zela orain dela urte batzuk: Arzalluzek bere erlojua eskuineko eskuan loturik zeramala, eta hori Arriortuari eginiko promes bati zor zitzaiola, eta ez zuela eskuz aldatuko harik eta Zornotzan lehen harria ipini zuten zelai tzarrean autoen faktoria egin arte. Lerro zuriko autoak egitea zuten xede bi sozio hauek, milioi pezeta inguruko automobil ekonomikoak izango ziren, merkatua jango zutenak, eta, Bizkaiko langileak enplegatuz, aldi berean euren Alderdiko bezeroak segurtatuko zituen negozioak. Ondo lotu zuten operazioa, ziotenez.

Asuntoa da, Arriortua espioitzat salatua izan zela, eta bere aurreko enpresaren eta hurrengo beste estatubatuar baten artean saltsa latzak montatu zituztela urte batzuetan; bere lantoki edo probaleku berria utzi behar izan zuen eta hitzaldiak ematen hasi; predikamendu handia izaki, askok eskatzen zituzten haren aholkuak, baina auzitik auzira zebilen eta bazirudien kartzelan-edo bukatuko zuela. Istripu latz bat izan eta oso gaizki gelditu zela, horixe izan zen beretaz entzun genuen azken gauza. Geroztik ez gara fijatu Arzalluzek zein eskumuturretan lotzen duen erlojuaren uhala, baina badirudi Amorebietako faktoria bertan behera geratu zela.

Hortik horrainokoa duela urtebete ere ez dela irakurri genuen (ezkerreko izateko susmagarria ez den) "D.V."-n: gure N-1-ean 90etako, demagun, eguneko 5.000 kamioi ibiltzetik 2000-etan 10.000tik gora ibiltzeko `kulpantea´ SuperLopez izan zela zioen berriak, luze. Agidanez, berak eta Wolkswagenek Europako hainbat hiriburu eta hirietan biltegiak ez edukitzea erabaki zuten, eta euren kamioiak izatea biltegi-ibilgailu erraldoi, errepideak josiz... Laster eguneroko 15.000 edo 20.000 kamioi ibiliko omen dira gure errepideetan, baina, aldekoek diotenez, AHTren merkantzia garraiolari berriarekin kopuru hori murriztuko omen digute. Sinestezina baina gezurra.

Arazoa da, aurrena premiak sortzen dizkigutela eta gero "soluzioak" jarri. Goitik, beti. Hurrengoa, ez da kontua, garabiekin ibiltzen den lagun batek kontatu zidan. Madrilgo M-30 egiteko erabili diren tuneladoratzarren moduko batekin (Europako handiena den milioika kilo eta tonatako, bi zentzutan, makinatzar luze eta zabalarekin) aritu dira zulatzen Madrilgo metroaren adar berri bat, Telefonicako egoitzaraino daramana, hain zuzen. Hondeatze lana bukatu dute eta, tuneladora desmontatzea garestiago ateratzen zenez, zer egin jakin ez horrekin, eta metro-adarraren saihetsean beste zulo bat egin espresuki eta hantxe lur eman omen diote tuneladora horri.

Hondamendia hondamendi gainean. Edo azpian. Erabili eta bota. Sator mekanikoak bere lana egin du eta bertan lurperatu: total, "lur azpian bizitzarik ez dagoenez"! Lehendik kalte gutxi egin balu bezala...! Biharko eguneko gizarteak nahiko lan izango du bizitzen, arnasa hartu eta ura edateagatik ere ordaindu beharko dute, eta nahiko lan izango dute halaber bihar-etziko industria-arkeologoek ere. SuperLopez eta AHTren ama guztiek kulparik ez badute ere, haiekin akordatu behar dira gure ilobak!

GUTUN@K ▸

▸ izena eta herria adierazi; HITZAk gutunak mozteko eskubidea du

Oiangu: Azala eta mamia

Gaztelerako esaera batek dio behatzak ilargia seinalatzen duenean, inozoak behatza begiratzen duela. Eta horixe egiten du Ordiziako Udalak Oianguko egitasmo berriaren inguruan; horixe egin arazi nahi digu eztabaidaren mamiari heldu beharrean azaleko kontuei heltzen dienean.

Izan ere, Oianguko auziaren inguruan Udalak azaleko kontuetan jarri nahi du arreta: Arartekoak zer esanik ba ote duen edo inhibitu behar duen. Hasteko, argitu dezagun Arartekoak ez duela zertan inhibitu, ez baita kontzesioaren inguruko demandarik oraindik formulatu; soilik egin da eskaera parte interesatu gisa onar gaitzaten. Eta segidan, esan dezagun garbi asko Udalak ezkutatu eta aintzakotzat hartu nahi ez duena, alegia, Arartekoak bi aldiz diktaminatu duela kontzesioak forma eta bizio akatsak dituela (lizitazioaren oinarrietan, egitasmoaren baloraziaon eta kontzesioan bertan), eta, beraz, Udalak berak ofizioz bertan behera utzi beharko lukeela kontzesioa.

Auzi formal eta juridiko horiek bere garrantzia badute ere, gure ustez Oianguren egitasmoaren muinean bi kontu hauek daude. Batetik, zer nolako egitasmoa behar dugun Oiangun erabilera publikoa bermatzeko eta inguru naturala babesteko. Bestetik, Udalak nola hartzen dituen erabakiak.

Lehenari dagokionean, ebidentea da egitasmo berriarekin erabilera publikoa murriztua geratzen dela (espazio libreak murrizten direlako eta sarrera ordaindupeko guneak ezartzen direlako). Eta ebidentea da, era berean, jasangarritasunaren eta ingurumenaren errespetuaren ikuspegitik, golf zelaiak kalteak eragingo dituela. Hori inozoak edo interes pribatuengatik jokatzen duenak baino ez du ukatuko.

Bigarenari dagokionean, gauza jakina da egitasmo berriak aurkakotasun handia duela Ordizian (3.000 sinadura inguru) eta Goierrin. Udalari ezinezkoa bazaio Oianguren erabilera eragile guztien artean aztertu eta erabakitzea (eskolak, ingurumen taldeak, kirol eta aisi taldeak, gazte eta jubilatuak...), halako aurkakotasun maila duen egitasmo baten aurrean, gutxienik oinarrizko ariketa demokratikoa egin beharko luke eta herritarroi kontsulta baten bidez galdetu. Inozotzat ez bagaitzute, behintzat. Baina horrek zorabioa eta izua eragiten dizkie gure agintariei. Nahiago lukete, inozo haren moduan, behatzari begira jarraituko bagenu!

JONE ETXEBERRIA ▸ ORDIZIA

MINUTU ERDIAN ▸

Idiazabalgo irudiak mundu osoan barrena

POLITIKA ▸ Aste honetan bertan ETA erakunde armatuak eman duen su-etena dela-eta, hainbat komunikabidek Idiazabalen hartutako argazkiak zabaldu dituzte. Idiazabalgo Gazte Asanbladako lagunek, *El Mundo* eta *BBC News* hedabideen web guneetan aurkitu dituzte Idiazabalgo kale nagusian dauden pintada batzuei ateratako argazkiak. Aurkitu eta bildu egin dituzte gainera. Ikusi nahi dituenak, IGAren *www.izalgogaztetxea.gaztesarea.net* gunean du aukera.